

KUREISHIREN 'INTIMITATEA' EUSKARATU DU HARKAITZ CANOK

Duela hamar urte kaleratu zuen idazle ingelesak liburu ospetsua



'Intimitearen' azala. ARGAZKIA: N.G.



DONOSTIA. "Ni ez naiz itzultzailea eta liburu bat euskaratzeko asko gustatu behar zait", adierazi zuen atzo Harkaitz Canok. *Intimatea* (Txalaparta argitaletxea) liburuaren euskarazko bertsioaren aurkezpena esaldi honekin hasi zuen idazleak.

Protagonista bikotekidea eta bi semeak utzi eta etxetik alde egin aurreko gauean bere bizitza ustez arrakastatsua sortzen dion asegabetasunaren arrazoiak aletzen joango da. Zergatik uzten diogu maita- tzeari? Zein da maleta prestatu, atetik atera eta sekula ez itzultzeko unea?

Hanif Kureishi idazle ingelesak duela hamar urte kaleratutako istorioak erabat harrapatu zuen Cano. "Gidoilaria da Kureishi baita liburuaren protagonista ere eta horrek lotzen nau", azpimarratu zuen. Aspaldi irakurritako testua da eta "orain gordinago eta mingarriagoa egiten zait duela hamar urte baino. Zintzoa eta hipnotikoa da eta nolabait galdutako inozentzi bat ikusi daiteke". Testuaren itzultzailearen hitzetan "autofikzio liburu bat da, badauka biografia pixka bat eta horrek morboa sortzen du irakurlean".

BELAUNALDIA Horretaz gain, Xabier Gantzarain idazleak belaunaldi desengainatu baten erretrato bat dela esan zuen. "Protagonistaren bizitzaren errepaso bat da. Gurasoekin, emaztearekin eta semeekin daukan harremana aztertzen ditu eta gordinki eta zintzoki *Zer egiten dut nire bizitzarekin?* galdetzen dio bere buruari".

Istoriaren zorrozatasuna alde batera utzita bai Canok eta bai Gantzarainek azpimarratu zuten *Intimitea* "distensio" eta "ironia" momentuak badituela. "Amaitzean esperantzarako leiho bat irekitzen da", esan zuten. >C.T.